


Antxiñako fotografixak

Orain dala 60 bat urteko dantzariak

Pasau barri dira *Korpuztiak*, sekula baiño beranduago aurten, eta betiko moduan ikusi dittugu **dantzariak** arin eta dotore auzuetan, kalietan, elizan nahiz plazan, bero galanta egin arren. Gaurkuan, baiña, omenalditxo gisa, sasue bateko dantzarien argazkixak ekarri dotsuet sail honetara. Orain dala hirurogei bat urtekuak izango dira honeik. Fotografixa batian Santa Anako sarre-rako elizpeian agiri dira kofradixako hamabi apostolu, Jesukristo eta San Migelekin batera. Bestian eurak bakarrik datoz.



Santa Anan belauniko agerketan diranak ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue: **Alejandro Irizar**, *Auntxolena*, dantza-maixua; **Juanito Biain**, *Perratzailiana*; **Karlos Aiausti**, *Otsuana*; **Santos Arriaran**, *Xipriña*; **Felix Santa Cruz**, *Kale Zaharreko Errementarixanekua*; **Joxe Mari Bikuña**, *Kantonostekua*; **Felix Agirre**, *Txikiña*; **Anjel Egaña**, *Callesena*; eta **Joxe Mari Aranburu**, *Kurtzetxokua*. Eskuman dagoz zutik **Miguel Díez Umerez** abadia, urte askuan kofradixako kapillaua izan zana, eta **Juanito Iñarra**, Santa Anako sakristaua. Atzeko banderaduna **Gregorio Lizarra**, *Etxatxo*, da. Honen onduan, Ama Birjiñiaren ezaugarrixa dakona eztago ezaguketarik eta karetdunak be ez, jakiña.

Beste argazkixak lehentxuagokua dirudi. Horko bost dantzari bestian be ikusi geinke, baiña hiru desbardiñak dira. Hona euren izenak ezkerretik eskumara. Goiko illaran: **Joxe Mari Aranburu**, baiña hau San Antue kalekua; **Karlos Aiausti**; **Joxe Mari Bikuña**; eta **Bixente Aranguren**, *Txartese-na*. Beheko illaran: **Felix Santa Cruz**; **Alejandro Irizar**, **Felix Agirre**, eta **Juanito Igartua**, Bakardadeko Ama kalekua. Bakarren batzuk bizi badira be, gehixenak hil dira; azkena, Felix Santa Cruz, orain dala gutxi.



J. E.

Santa Anako fotografixia Eibarko Plazaolak ateratakua da 1950ko hamarkadiaren hasieran. Bestia eztagu norena dan. Guri Felix Santa Cruzen billobak eskuratu doskue. Argibidiak Jexux Irizar, Marixabel Biain, Jabier Arriaran eta Joxe Mari Urzelairi be zor dostegu. Milla esker danoiri!